



20225EAN HAUTATUTAKO 7 PROIEKTUEN XEHETASUNA

Kategoria: Fabrikazio aurreratua, aeronautika eta mugikortasun elektrikoa – 2 proiektu

CAST3D proiektuaren helburua 3Dn inprimatutako erretxinazko ereduen erabilera baliozkotzea eta optimizatzea da, balio erantsi handiko piezetarako aluminioaren galdaketan galdutako argizariaren prozesu tradizionala ordezkatzeko. Erretxinazko ereduen 3D inprimaketak aukera malguagoa, azkarragoa eta merkeagoa eskaintzen du. Proiektuak 3D inprimaketa prozesu sendoa eta ekonomikoki bideragarria garatzea aurreikusten du, serie txikietan doitasun handiko piezak ekoizteko, Euroeskualdeko oinarri teknologiko eta logistikoan oinarrituta.

Partzuergoa: NHOD Industries (proiektu-burua, Akitania-Berria), NAITEC (Nafarroa) eta Eibar Precision Casting (Euskadi)

Dirulaguntza/aurrekontua: 57.980 €/ 116.560 €

CIRCE uhin-gidaritzako zirkulagailuen diseinuan eta fabrikazioan ardazten den proiektua da, fabrikazio gehigarriko teknologien bidez. Bere helburu nagusia elkarrekikoak ez diren gailu pasiboak garatzea da, 3D inprimaketa metalikoa eta polimerikoa erabiliz. Horri esker, kostuak murriztu, garapen-epeak laburtu eta geometria berritzaileak esploratu ahal izango dira.

CIRCEk ohiko mekanizazio-metodoekiko alternatiba malgua eta eraginkorra planteatzen du, satellite bidezko komunikazioetan, radarretan eta 5G sistemetan potentzial handia duena.

Partzuergoa: Anteral (proiektu-burua, Nafarroa), Fundación Centro de Tecnologías Aeronáuticas – CTA (Euskadi), NAITEC (Nafarroa), LISI AEROSPACE Additive Manufacturing (Akitania-Berria), HEGAN Euskadiko Aeronautika eta Espazioko Kluster Elkarte (Euskadi)

Dirulaguntza/aurrekontua: 75.000 €/ 150.000 €

Kategoria: Sormen eta Kultura Industriak, Ikus-entzunezko Industria – 2 proiektu

EUROHUB DESIGN proiektuaren helburua diseinuaren benetako euroeskualde-ekosistema egituratzea da; Akitania-Berriko, Nafarroako eta Euskadiko enpresen, profesionalen eta ezagutza-zentroen arteko lankidetzak indartuz. Proiektua ekosistema hau eraikitzeke prozesu progresibo gisa ulertzen da, diseinura bideratutako mugaz gaindiko hub bat sortzea ekarriko duena.

Partzuergoa: HABIC klusterra (proiektu-burua, Euskadi), Sokoa (Akitania-Berria), UNAV – Nafarroako Unibertsitatea (Nafarroa)

Dirulaguntza/aurrekontua: 72.500 €/ 145.000 €

HEDABIL proiektuak datu-biltegi oso eta eraginkor bat garatuko du euskarazko hedabideen audientzia aztertzeke, gaur egun sakabanatuta dauden iturriak konektatuz eta elkartuz. Helburua 360 graduko ikuspegi bateratua lortzea da, analisi deskribatzaileak, diagnostikoak, iragarleak eta preskripziozkoak egin ahal izateke eta agente-taula estrategikoak sortzeko. Horrela, analisi-sistema integral bat ezarriko da, sektoreari kanal anitzeko audientzia modu integratuan neurtzeko aukera emango diona.





Partzuergoa: Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU (proiektu-burua, Euskadi), Hekimen elkarte (hiru lurraldeetako hedabideek osatutako partzuergoa)

Dirulaguntza/aurrekontua: 27.188 €/ 139.706 €

Kategoria: Energia Berriztagarriak – proiektu 1

EKIMUGI ekimenaren helburua Euroeskualdeko mugaz gaindiko energia-komunitateen esparruan elektromugikortasunaren eta energia berriztagarrien arteko sinergiak aztertzea eta frogatzea da. ENERKIDE proiektuaren aurrerapenetatik abiatuta, EKIMUGIk ibilgailu elektrikoa eta auto partekatua posible egiteko frenoak eta palankak aztertuko ditu; kargatzeko azpiegituren eta lurraldeen arteko mugikortasun-zerbitzuen bateragarritasuna aztertuko du; eta tresna posible bat proposatuko du ekoizpen berriztagarriaren, kargatze adimendunaren eta sarearen malgutasunaren arteko artikulazioa optimizatzeko.

Partzuergoa: Aupa (proiektu-burua, Akitania-Berria), Goiener (Euskadi), Nafarkoop (Nafarroa), ESTIA (Akitania-Berria)

Dirulaguntza/aurrekontua: 35.444 €/ 70.888 €

Kategoria: Biozientziak, Osasuna, Zilar ekonomia – proiektu 1

EINEM proiektuaren helburua esklerosi anizkoitza (EA) duten pertsonen aplikatutako esku-hartze dietetiko berritzaile bat zientifikoki baliozkotzea da, interbentzioa egin baino lehen, berehala eta hiru hilabete geroago jasotako lagin biologikoen analisiaren bidez. Funtsezko adierazleak aztertuko dira, hala nola hanturazko profila, mikrobiomaren konposizioa, metabolitoak eta elikaduratik eratorritako konposatu onuragarrien presentzia.

Partzuergoa: Biogipuzkoa Osasun Ikerkuntzarako Zentroa (proiektu-burua, Euskadi), Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), UNAV – Nafarroako Unibertsitatea (Nafarroa), Bordeleko Unibertsitateko Mahatsondoaren eta Ardoaren Zientzien Institutua (Akitania-Berria)

Dirulaguntza/aurrekontua: 63.760 €/ 127.520 €

Kategoria: Nekazaritza elikagaien industria, Elikadura osasuntsu eta jasangarria – Proiektu 1

INKUBA SAREA 2 proiektuak Euroeskualdean nekazaritza elikagaien, nekazaritza eta ingurumenaren sektoreen garapena bultzatu nahi du, aukerak identifikatuz eta sortzen ari diren start-upei lagunduz. INKUBA SAREaren lehen edizioan hasitako ikuspegi kolaboratibo baten bidez, ekintzaileak, erakundeak eta adituak barne hartzen dituen, proiektuak enpresa berrien sorrera sustatu eta jada existitzen diren ekimenak indartu nahi ditu, parte hartzen duten eskualdeetan inpaktu ekonomiko eta soziala sortuz.

Partzuergoa: Agour (proiektu-burua, Akitania-Berria), AZTI (Euskadi), CEIN (Nafarroa)

Dirulaguntza/aurrekontua: 75.000 €/ 150.000 €